



EBAZPENA, 2019KO URRIAREN 1EKOA, TURISMO ETA OSTALARITZAKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ERABAKITZEN BAITA AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKO BAT EGITEA EUSKAL KULTURA ONDAREKO ELEMENTU KATALOGATUEN BARNEKO TURISMO-GIDARIAREN JARDUNA GAITZEKO DEKRETUA EGIN AURRETIK.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak abian jarriko du euskal kultura-ondareko elementu katalogatuen barneko turismo-gidariaren jarduna gaitzeko dekretua egiteko prozedura.

Etorkizuneko arauak eragin diezaiekeen pertsona eta erakunde adierazgarrienen iritzia jaso asmoz, araua egiteko prozedura abiatu aurretik kontsulta publiko bat egitea erabaki da. Ebazpen honen eranskinean adierazten dira ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, arauaren premia eta berau onartzeko egokitasuna, arauaren helburuak eta izan litezkeen bestelako aukera ez-erregulatuak.

Horrenbestez, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 81/2017 Dekretuaren 7.g) eta 8.1.c) artikuluetan aitortutako eskumenekin bat etorritik,

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Aurretiko kontsulta publikoko aldi bat zabaltzea euskal kultura-ondareko elementu katalogatuen barneko turismo-gidariaren jarduna gaitzeko dekretua egiteko prozedura abian jarri baino lehen, eta, horretarako, ebazpen hau argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko egoitza elektronikoaren iragarki-taulan.

Herritarrek iritzia eman ahal izango dute konpondu nahi diren arazoez, araua onartzearen beharraz eta egokieraz, haren helburuez eta bestelako aukera arautzaileez eta ez-arautzaileez, kontuan hartuz ebazpen honen eranskinak dioena.

Ekarpenak 2019ko urriak 29a arte egin ahal izango dira.



BIGARRENA.- Ebazpen hau *Legegunea* gunean erakutsiko da, bai eta Jaurlaritzaren *Irekia* plataforman ere, zeinean herritarrek bere iritzia eman ahal izango dituzten modu informalean.

Gasteizen, 2019ko urriaren 1ean

Honako honek elektronikoki sinatua

TURISMO ETA OSTALARITZAKO ZUZENDARIA.

Gregorio José Zurro Tobajas..

ERANSKINA

EKIMENAREKIN KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 64. artikulua, honela definitzen du turismo-gidariaren jardura: «Jardura eta zerbitzu turistikoaren erabiltzaileentzat informazio- eta interpretazio-lana egiten dute Euskadiko interes kultureko ondasun eta gainerako baliabide turistikoaren ondare historiko, natural eta gastronomikoari buruz. Zerbitzu horiek ohikotasunez, profesionaltasunez eta prezio bidez ematen dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eta atzerriko beste edozein hizkuntzatan».

Honakoa ere gaineratzen du: «Turismo-gidarien jardura aske emateko zerbitzua da, salbu eta euskal kultura-ondarea osatzen duten kategorietako baten barruko ondasuntzat katalogaturiko elementuen barruan egiten bada, bat etorritik indarreko Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak ezarritakoarekin». Ildo horretan, hau zehazten du: «Turismo-gidariarentzat, zirkulazio askeko bide edo esparru publikoak beti dira beren zerbitzuak aske emateko esparruak».

Aipatutakoaren bat, 64. artikuluan bertan hau gaineratzen da: «Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-gidari gisa aritzeko, eta zerbitzuak aske emateko tokietatik kanpo turismo-gidari jardun ahal izateko, dagokion gaikuntza eduki beharko da, erregelamenduz ezarritako moduan. Gaikuntza hori Euskadiko Turismo Administrazioak emango du, aintzat hartuta, besteak beste, titulazioa eta esperientzia.

Espainiako Estatuko autonomia-erkidegoetan edo Europar Batasuneko estatu kideetan aitortutako edo gaitutako turismo-gidariak Euskadin aldi batean jardun ahal izango dute turismo-gidari, zerbitzua aske emateko tokietatik kanpo; horretarako, aurretiko adierazpen bat izenpetu beharko dute, araudiak ezartzen duen moduan».

Bestalde, Turismoari buruzko 13/2016 Legearen 24. artikulua Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroa arautzen du, eta hau dio: beste autonomia-erkidego batzuetan, Europar Batasuneko estatu kideetan eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioari elkartutako estatuetan legez ezarritako enpresen kasuan zein gaitutako turismo-gidarien kasuan, erregistroko inskripzioa ofizioz egingo da.

Erregelamendu-mailan, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroari buruzko uztailaren 16ko 112/2019 Dekretuak, turismo-gidari gaituen inskripzioari eskaintzen dio III. kapitulua, eta, bertan xedatzen denez, bai Euskadiko administrazio turistikoak gaitutako pertsonak bai beste autonomia-erkidego batzuetan edo Europar Batasuneko beste estatu kideetan gaitu edo aitortuak inskribatuko dira. Gaikuntza lortzeko baldintzei eta prozedurari dagokienez, berriz, 112/2019 Dekretuaren 10.2 artikulua «horren inguruan ematen diren arau espezifikoetara» jotzen du; 112/2019 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera, gainera, aurreikuspenon eraginkortasuna atzeratuta geratzen da arauok onartzen diren arte.

Horiek horrela, aipatutako lege- eta erregelamendu-zehaztapenek eskatzen dute erregelamendu-mailako arau bat prestatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondareko elementu katalogatuen barnean turismo-gidariaren jardura gaitzeko baldintzak eta prozedurak jasoko dituen, baita turismo-gidariak Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatzekoak ere, beste autonomia-erkidego batzuetan edo Europar Batasuneko beste estatu kideetan gaitu edo aitortuekin batera.

ONARPENAREN PREMIA ETA EGOKITASUNA

Aipatu inguruabarrekin, justifikatuta dago aipatu edukia izango duen dekretua egitea. Orain arte, Turismoaren Legea ez da alderdi horretan garatu, eta, beraz, ez dago xedapen normatiborik adierazi jardura turistikoa gaitzeko, ezta berau Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatzeko ere.

ARAUAREN HELBURUAK

Azaldutako gogoetak kontuan izanik, dekretu bat egitea proposatzen da, honako helburu hauei erantzungo diena:

- Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondareko elementu katalogatuen barnean turismo-gidariaren jarduera gaitzeko baldintzak eta prozedurak ezartzea, baita turismo-gidariak Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatzekoa ere.
- Beste autonomia-erkidego batzuetan edo Europar Batasuneko beste estatu kideetan gaitu edo aitortutako turismo-gidariak Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatzeko modua ezartzea.

IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA EZ-ERREGULATZAILEAK

Aurreko puntuak aintzat hartuta, ezinbestekoa da arau-izaera duen neurri espezifiko bat prestatzea; ez dago bestelako aukerarik.